



EUSKARALDIA

URRI TABERNA

JAI ALAI

Hizkuntza ohiturak aldatzeko esperimentua

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitarte egingo da *11 egun euskaraz* ekimena. Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernua, Euskal Elkargoa eta Euskaltzaleen Topagunea dira antolatzaile. Beren datuen arabera, 60.000tik gora pertsonak eman du izena.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

Euskararen erabileran eragin nahi du *Euskaraldia*: 11 egun euskaraz ekimenak. Norbanakoak izango dira protagonistak. Ekimenaren helburua hiztun bakoitzak bere hizkuntza ohiturez gogoeta egitea da, jabetzea noiz egiten duen euskaraz, noiz ez, norekin bai, norekin ez... Behin jabetuta, euskaraz ahalik eta gehien egiteko ariketa proposatzen du Euskaraldiak. Hiztun bakoitzak bere buruari erronkak edo konpromisoak ezar diezazkioke: halako lagun euskaldunarekin ez dut euskaraz egiten, bada oraingoa elkarriketak euskaraz egiten saiatuko naiz; ezezagunari lehen hitza erdaraz egiteko ohitura dut, bada orain euskaraz egiten hasiko naiz; lagunartean bakarra dugu euskaraz egiten ez duena eta beti erdaraz egiten dugu, bada euskarari eusten saiatuko naiz hurrengoan bai baitakit erdaldunak euskara ulertzen duela... Ahal duen guztietan euskaraz egiten saiatuko den norbanako horrek rol bat beteko du, hau da, *ahobizia* izango da. Euskaraz hitz egiten ez dutenek ere tokia izango dute Euskaraldian. Eus-

karaz ulertzeko gai badira *belarriprest* rola izango dute eta haien egitekoa beraien euskaraz egiteko eskatzea izango da. Bi rolek, ahobiziek eta belarriprestek, txapa identifikagarria eramango dute paparrean. Hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa norbanakoak egitekoa da, baina antolatzaileek giro babestua, abegikorra sortu nahi izan dute.

60.000 euskal herritarrek baino gehiagok eman dute izena ahobizi edo belarriprest izateko. Urriaren amaierako kontaketaren arabera %45 gipuzkoarrak dira, %31 bizkaitarrak, %12 nafarrak, %9 arabarrak, %2 lapurtarrak, eta %1 baxenabartarrak eta zuberotarrak. Ahobiziek gehiago izango dira belarriprestat baino.

Hamaika eguneko ariketak parte-hartzaileen hizkuntza ohituretan izan duen eragina neurtzeko Soziolinguistika Klusterrak ikerketa egingo du. Hiru galdetegi beteko dituzte ahobiziek eta belarriprestek; Euskaraldia hasi baino egun batzuk lehenago, bukatu eta egun gutxira; eta 2019ko martxoan.



Egia auzoan erne zen hazia

Donostiako Egia Euskaraz batzordeak erabaki zuen euskaldunentzako ariketa praktikoa egin behar zuela auzoan. Esperimentu hari begira etorri dira ondokoak.

Horietako lau ekimenen ezaugarri nagusiak ekarri ditugu hona. Horiez gain, beste hainbat egin dira Euskal Herrian. Horietako batzuk dira ondokoak:

Añorga auzoa (Donostia), Donostiako Piratak, Astigarraga, Arrigorriaga, Aiaraldea, Trapagaran, Bilboko Deustu auzoa, Derio, Baiona-Angelu-Biarritz, Oarsoaldea, Zuia, Lizarra, Tolosa, EHU (Leioa).

Onintza Irureta Azkune



ARGAZKIA: DANI BLANCO



ARGAZKIA: HERNANIKO KRONIKA



ARGAZKIA: TXINTXARRI



ARGAZKIA: ARABAKO ALEA

» EGIA AUZOA (DONOSTIA)

EGIAN EUSKARAZ BIZI NAHI DUGULAKO

Noiz: 2016ko urtarrila-otsaila-martxoa.

Hasiera: Euskaldunak aktibatzeo eta egunerokoan euskara erabiltzeko gisa honetara egin zen lehen ekimena izan zen. Lutxo Egia artistaren performancean oinarritu ziren. Lutxo Egiak hilabete osoa igaro zuen Bilbon euskaraz soilik hitz egiten.

Helburua: Astebetez euskaraz bizitzea, euskarari ahalik eta gehien eustea. Ekimena euskaldunentzat zen. Erdaldunei eta euskaldun pasiboei hizkuntzaz aldatzea ez eskatzeko eskatu zieten. Dendariei zer egitera zihoazen azaldu zieten.

Nola: Zortzi astez astebeteko txandak banatu zituzten. Lehen zazpi txandetan eragileek edo taldeek hartu zuten parte eta zortzigarren-goan norbanakoek.

Txapa: Parte-hartzaileek paparrean Euskaraz Bizi Nahi Dugulako txapa zeramaten.

Antolatzailea: Egia Euskaraz Batzordea.

Finantzaketa: Egia Euskaraz Batzordea, Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzua eta Donostia Kultura.

» HERNANI

EUSKARA ARI DU

Noiz: 2016ko urria-azaroa.

Helburua: Ahal zen guztietan eta ahal zen guztiekin euskaraz egitea. Normalean euskaraz hitz egiten duenak ohitura ez zuenarekin euskaraz egin zezan eta hitz egiten ez zekienak, aldiz, ez zezala erdarara pasatzeko eskaerarik egin, hori izan zen proposamena. Ulertzen ez zuenari apustua zein zen azaldu zitzaion.

Nola: Sei astean astebeteko txandak egin zituzten. Norbanakoek eta taldeek hartu zuten parte.

Parte-hartzaileak: 1.800, nagusiki euskaldunak eta batzuk euskaldun pasiboak.

Txapa identifikagarria banatu zuten, nahiz eta txaparik gabe ere ari zuen jendea.

Antolatzaileak: Euskalgintza, Hernaniko Udaleko Euskara Zerbitzua eta ikastetxeak.

Finantzaketa: Hernaniko Udala.

» LASARTE-ORIA

BAIETZ 40 EGUN EUSKARAZ

Noiz: 2016ko urria-azaroa-abendua.

Nola: Bi figura sortu zituzten. *Belarriprestak*, euskara ulertzen zutenek, besteei erabiltzeko gonbita egingo zien. *Ahobiziak* astebetaz euskaraz bizitzeko erronkari eutsiko zion. Sei astez egin zituzten txandak.

Txapak: *Belarriprest* eta *ahobizi* txapak zeuden. Astebetez *ahobizi* izan zenak hurrengo asteetan *belarriprest* txapa hartzen zuen. *Belarriprest* izatea erabaki zutenek 40 egunez eraman zuten txapa soinean.

Ahobiziak: Bi konpromiso hartu zituzten, bata, euskara ulertzen duenari dena euskaraz egitea, eta bestea, ezezagunari lehenengo hitza euskaraz egitea.

Parte-hartzaileak: Denak norbanakoak ziren. 947 *ahobizi* eta 1.927 *belarriprest*.

Ikerketa: *Ahobiziek* beraiek aukeratutako etxeokoen, lagunekin, lankideekin edo ezagunekin zerrenda osatu zuten. Erronka astebetaz euskara hutsean aritzea izan zen. Partaideei hiru aldiz galdetu zieten euskararen erabileraren zenbatekoa. Erronka hasi aurretik %62,4koa zen; astebeteko erronka egin eta gero erabilera %83,8ra igo zen; eta handik hiru hilabetera %81,3an zegoen.

Antolatzaileak: Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzua eta Ttakin kultur elkarteak.

Finantzaketa: Lasarte-Oriako Udala.

» AGURAIN

75 ORDU EUSKARAZ

Noiz: 2016ko azaroaren 8tik 11ra.

Helburua: Euskaldunak ahalduntzea eta aktibatzea, hau da, norbanakoen hizkuntza portaeretan eragitea.

Nola: Bi kanpaina egin zituzten. "Nik 75" euskaldunentzako eta "Guk 75" erdaldunentzako. Erdaldunei eskaera: nahiz eta guztia ez ulertu, egin dezala besteari ulertzeko ahalegina, eta euskaldunari ez eskatzeko berehala erdarara pasatzeko.

Txapa: "Hartu dut erabakia! Nik 75" txapa identifikagarria zeramaten euskaldunek.

Parte-hartzaileak: 284 norbanakok sinatu zuten "Nik 75" konpromisoa. "Guk 75" kanpaina ez zen sinadurarik eskatu. Bederatzi erakunde, 84 establezimenduk eta 40 kolektibok eman zuten baiezkia.

Parte-hartzaileei galdezka: %86k euskaraz irabazitako harreman horietan jarraitzeko asmoa zuela esan zuen. %80k lehen hitza euskaraz egin zuela esan zuen baina bigarren hitza euskaraz egin zutenen kopurua %20 izan zen.

Antolatzailea: 20 laguneko boluntario taldea.

Finantzaketa: Olbea Aguraingo euskara elkarteak diru kopuru bat eman zuen eta gainerako guztia kamiseta, pintxo eta ekintzetatik atera zen.